



- Haur bakoitzak bere gurasoekin, anai-arrebekin, aitona-amonekin edo lagunekin erlazionatzeko duen esperientzia har dezakegu abiapuntu gisa. Galdetuko diegu zergatik gustatzen zaien haiekin hitz egitea, zeri buruz hitz egiten duten, zein unetan hitz egiten duten...

Aurreko gaietan ikusitakoa oinarritzat hartuz, gogoraraziko diegu Jesusek jende guztiarekin hitz egiten zuela (bideko itsuarekin, Zakeorekin, dizipuluekin...), eta Jainkoarekin ere hitz egiten zuela.

- Hitz egiteko eta komunikatzeko, baldintza batzuk bete behar izaten dira: zaratarik ez egotea, eroso sentitzea, arreta jartzea; horrela, zer gertatzen zaigun kontatzen dugu, edo zer lortu nahi dugun, edo zerk kezkatzen gaituen... Eta, alderantziz, norbait guri zuzentzen zaigunean, entzun egiten diogu. Denoi gustatzen zaigu guri kasu egitea, esaten duguna adi entzutea. Irakur dezatela 50. orrialdean idatzi dutena.

Orain, jolas bat egingo du, komunikazioaren garrantziaz jabetzeko. “**Telefono puskatuaren jolasean**” arituko gara. Lehenengoak ondokoari esaldi bat esango dio belarrira, ziztu bizian; esaldia entzun duenak bere ondokoari belarrira esango dio entzun duena, eta horrela hurrenez hurren, azkenekora iritsi arte. Azkenekoak ozen esango du belarrira zer esan dioten, eta esaldia aurrenekoz esan duenak adierazi beharko du zein zen berak esandako esaldia; orduan, ikusiko dugu esaldiak berdinak diren edo zerikusirik ez duten. Konturatuko gara komunikatzeko baldintzak egokiak ez direnean oso zaila egiten dela ondo entzutea eta ondo ulertzea.

“**Hitz kateatuen jokora**” ere jolas gaitezke. Lehenengo jokalaria hitz bat esango du (adibidez, maionesa); bigarren jokalaria hitz horren azken silabarekin (kasu honetan, *sa*) hasten den hitz bat esan behar du (adibidez, sabela). Eta horrela hurrenez hurren. Hitz egokirik aurkitzen duen jokalaria kanporatu egingo da. Jokoak aurrera jarraituko du, irabazle bakar bat geratu arte. Kasu honetan ere, helburua da arreta jartzea, besteak entzuteko adi egotea.

Hitz egiten dugunean, gauzak kontatzen ditugunean, zoriontsuago sentitzen gara. Albiste on bat daukagunean eta kontatu egiten dugunean, ematen du albiste hori are hobea dela. Eta, alderantziz, triste gaudenean eta kontatu egiten dugunean, ematen du tristura hori apaldu egiten dela nolabait. Saiatuko gara haurrek horri buruz zerbait kontatu dezaten.



Dena den, gertu dauzkagun pertsonekin ez ezik, urruti daudenekin ere erlazionatzen gara. Horretarako, hainbat baliabide ditugu: gutunak, telefonoa, posta elektronikoa, whatsapp...

- «Baina bada komunikatzeko beste modu bat ere: Jesusen lagunok *otoitza* deitzen diogu. Otoitzaren bidez, Jainkoarekin hitz egiten dugu, entzun egiten diogu, zer gertatzen zaigun kontatzen diogu, eskerrak ematen dizkiogu, eskariak egiten dizkiogu... Jesusek askotan hitz egiten zuen Jainkoarekin. Saiatuko al gara gu ere?

Jende askorekin hitz egiten dugu, baina, gaur, Jainkoarekin hitz egiten ikasiko dugu. Ikusi al duzue inoiz inor otoitz egiten? Nor? Zer esaten zuen? Nola esaten zuen? Jainkoarekin nola hitz egin dezakegun ikasteko, ikus dezagun Jesusek nola egiten zuen».

Lukas 11, 1-4 testua irakurriko dugu denon artean. Beren liburuko **48. orrialdean** daukate.

Litekeena da haur batzuek aitagurea oraindik ez jakitea. Koloretako kartoi meheetan, esaldiz esaldi daukazue aitagurea. Ausaz banatu esaldiak. Hasierako esaldia orlegiz joango da; gainerakoak, beste kolore batzuetan. Katekistak esango du: «Has dadila kartoi mehe orlegia duena». Kartoi mehe handian, esaldiak ordena egokian itsasten joan, bata bestearen azpian, otoitza osatu arte.

**Esaldi bat ipintzen duzuen bakoitzean, katekistak esaldi horren esanahia irakurriko du (GURE AITA OTOITZAREN AZALPENA -3go orria).**

Haur batzuek dagoeneko ondo baldin badakite aitagurea, nahi izanez gero konta dezakete noiz eta norekin ikasi duten, noiz esaten duten, etxean errezatzen duten...

AITA GUREAREN JOKOA banatzen degu.

Jolastu ondoren eta bukatzeko, kandela piztu, eta *Gure Aita* errezatuko dugu denon artean. Kartoi mehe handia kortxoan jarriko dugu. Iradoki haurrei aitagurea etxean errezatzeko, horrela errazago ikasiko baitute. Haurren liburuko **49. orrialdean** daukazue testua.



**GURE AITA:** Jainkoari AITA deitzen erakutsi digu Jesusek. Gure familiako aita bezala, gutaz arduratzen da eta gu zoriontsu izatea nahi du.

**ZERUETAN ZARENA:** zerua Jesusek amesturiko mundua da. Bertan, justizian, bakean eta berdintasunean bizi dira gizaki guztiak.

**SANTU IZAN BEDI ZURE IZENA:** jaiotzean, izen bat jarri ziguten guztioi, eta lagun, senide eta gainerakoek guri **errespetuz** hitz egitea gustatzen zaigu.

**ETOR BEDI ZURE ERREINUA:** Jesusek bezala, guk ere munduan elkartasun eta zuzentasun gehiago egotearen alde egin behar dugu lan, inor ez dadin goseak egon eta ez dadin berekoikeria nagusitu.

**EGIN BEDI ZURE NAHIA:** gu guztiok zoriontsu izatea nahi du Jainkoak, eta elkarri on egitea. Batzuetan gaizki jokutzen dugu.

**EMAGUZU GAUR EGUN HONETAKO OGIA:** munduan, jende asko goseak dago. Elkarbanatu egin behar dugu daukaguna, inor ez dadin goseak egon eta denek izan ditzaten lana, arropa, etxea eta abar. (Gogoan izan aurreko gaia, ogiak eta arrainak ugaritzearena. Elkarbanatzen badugu, denentzat iritsiko da).

**BARKATU GURE ZORRAK:** aitortu behar dugu noizean behin oker jokutzen dugula eta kalte egiten diegula beste batzuei: senideei, lagunei, naturari... Horregatik, barkamena eskatu behar diegu bai Jainkoari eta bai kaltetu ditugunei.

**GUK ERE GURE ZORDUNEI BARKATZEN DIEGUNEZ GERO:** barkatu egin behar diegu min egin digutenei, guri ere barkatzea nahi genukeen bezalaxe.

**EZ GAITZAZU UTZI TENTALDIAN ERORTZEN:** tentaldian erortzea gure eginbeharrak albo batera uztea da (etxeko lanak, adibidez), ezer egin gabe botata egotea, gezurrak esatea, inbidia izatea, indarkeria erabiltzea...

**BAINA ATERA GAITZAZU GAITZETIK:** ez diogu gaitzari gure bizitzan gailentzen utzi behar. Gorrotoa, ezinikusia, injustizia, gosea, irainak eta abar dira gaitza.



## AITA GUREAREN JOKOA

Dadoekin eta fitxekin jokatzeko

- Dado batekin jokatzen hasi bakarka
- Jokalari bakoitza aurreratzen doa dadoak adierazten dituen laukien arabera.
- Aita gurearen eskaera batean erortzen bada osatu behar du.
- Gainerako seinaleak taulan daude.

<p><b>IRTEERA</b> →</p>	<p><b>1</b> Jesusek laguntzen dizu, aurreratu bat.</p> 	<p><b>2 GURE AITA</b></p> <p>.....</p>	<p><b>3</b> Jesusek besarkatzen zaitu (aurreratu leku bat)</p> <p>↓</p>
<p><b>7</b> Jaunak maite nau.</p>  <p>↓</p>	<p><b>6</b> ETOR BEDI</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p><b>5</b> Ze gauzak egiten dituzte Jesusen haurrak?</p> 	<p><b>4</b> SANTU IZAN BEDI</p> <p>.....</p> <p>.....</p>
<p><b>8</b> EGIN BEDI ZURE NAHIA</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p><b>9</b> Jesusek laguntzen dizu, aurreratu bat.</p> 	<p><b>10</b> EMAIGUZU GAUR</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p><b>11</b> Aita gure osoa errezatu (laguntza eska dezakezu)</p>  <p>↓</p>
<p><b>15</b> Aita gure osoa errezatu (laguntza eska dezakezu)</p>  <p>↓</p>	<p><b>14</b> GUK ERE GURE ZORDUNEI</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p><b>13</b> Errezatzea ahaztu zitzaidan (txanda bat galdu zenuen)</p>  <p>←</p>	<p><b>12</b> BARKATU</p> <p>.....</p> <p>.....</p>
<p><b>16</b> EZ GAITZAZU UTZI</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p><b>17</b> Jesusek besarkatzen zaitu (aurreratu leku bat)</p>	<p><b>18</b> BAINA ATERA GAITZAZU</p> <p>.....</p>	<p><b>19</b> Ze gauzak egiten dituzte Jesusen haurrak?</p> 



## AITA GUREAREN JOKOA

Dadoekin eta fitxekin jokatzeko

- Dado batekin jokatzen hasi bakarka
- Jokalari bakoitza aurreratzen doa dadoak adierazten dituen laukien arabera.
- Aita gurearen eskaera batean erortzen bada osatu behar du.
- Gainerako seinaleak taulan daude.

<p><b>IRTEERA</b> →</p>	<p><b>1</b> Jesusek laguntzen dizu, aurreratu bat.</p> 	<p><b>2 GURE AITA</b></p> <p>.....</p>	<p><b>3</b> Jesusek besarkatzen zaitu (aurreratu leku bat)</p> <p>↓</p>
<p><b>7</b> Jaunak maite nau.</p>  <p>↓</p>	<p><b>6</b> ETOR BEDI</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p><b>5</b> Ze gauzak egiten dituzte Jesusen haurrak?</p> 	<p><b>4</b> SANTU IZAN BEDI</p> <p>.....</p> <p>.....</p>
<p><b>8</b> EGIN BEDI ZURE NAHIA</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>→</p>	<p><b>9</b> Jesusek laguntzen dizu, aurreratu bat.</p> 	<p><b>10</b> EMAIGUZU GAUR</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p><b>11</b> Aita gure osoa errezatu (laguntza eska dezakezu)</p>  <p>↓</p>
<p><b>15</b> Aita gure osoa errezatu (laguntza eska dezakezu)</p>  <p>↓</p>	<p><b>14</b> GUK ERE GURE ZORDUNEI</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p><b>13</b> Errezatzea ahaztu zitzaidan (txanda bat galdu zenuen)</p>  <p>←</p>	<p><b>12</b> BARKATU</p> <p>.....</p> <p>.....</p>
<p><b>16</b> EZ GAITZAZU UTZI</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>→</p>	<p><b>17</b> Jesusek besarkatzen zaitu (aurreratu leku bat)</p>	<p><b>18</b> BAINA ATERA GAITZAZU</p> <p>.....</p>	<p><b>19</b> Ze gauzak egiten dituzte Jesusen haurrak?</p> 